

ZU ZARA PLAN HONEN
PROTAGONISTA

JARRI BIDEAN!



BIDE BATZUK

🌀 Berri Onaren iragarpena

Lehen Iragarpenari, kristau-hasierari eta katekesiari bultzada berria emanen diegu.

🌀 Pastoral Arreta Unitateak

Pastoral Unitateen benetako ezarpena aztertuko dugu, bultzada emanen diegu eta parrokia-mapa egokia osatuko dugu.

🌀 Formazioa

Dagoen formazioa sustatuko dugu eta eskuragarriago egingen dugu.

🌀 Komunikazioa

Barneko eta kanpoko komunikazioa hobetzeko komunikazio-plan bat osatuko dugu.

🌀 Laikoak

Pastoral eta ekonomia kontseiluak bultzatuko ditugu parroketan.

🌀 Behartsuak

Gure Elizbarrutiko gizarte ekintza koordinatuko dugu..

🌀 Familiak

Familiei laguntza eta babesa emanen diegu, topaketak, hausnarketa taldeak, otoitz saioak eta guraso-eskolak antolatuz.

🌀 Gazteak

Gazteen prestakuntza osorako programa bat landuko dugu, fedean hazi daitezen.

🌀 Apaizak

Gure apaizen heziketa eta babesa bultzatuko ditugu.

🌀 Bizitza sagaratua

Bizitza sagaratua elizbarrutiko pastoraltzan txertatzearen aldeko apustua egingen dugu.

🌀 Landa ingurunea

Landa eremuko laguntza talde berriak antolatuko ditugu, denengana iristearren.

🌀 Babesa eta ingurune seguruak

Tratu onaren kulturaren heziketa ditugu pastoral eragileak adingabeekin eta pertsona ahulekin lan egiteko.



JARRI BIDEAN!

Elizbarrutiko Pastoral Plana 2026-2029





Jarri bidean! gure Elizaren bizitzan parte hartzeko gonbidapena da.

Denok dugu zer emana eta aniztasun horrek Elizaren mezua aberasten du. Parte-hartzeak esan nahi du komunitateko kide bizi sentitzea, misioa geure egitea eta bakoitzaren gaitasunen arabera elkarlanean aritzea. Plan honek parrokiak biziberritzera bultzatzen gaitu, apaizak zaintzera, pastoral kontseiluak sendotzera eta erabakiak hartzen diren lekuetan laikoek parte har dezaten laguntzera. Era berean, formazioa zaintzera eta bataiatu guztien inplikazioa bultzatzera animatzen gaitu pastoral esparruetan zein gizartean.

Elizbarrutiko Pastoral Plan honek itxaropenerako deia izan nahi du; gure fedea berritzen, elkartasuna sendotzen eta Iruña eta Tuterako Elizbarrutian misio-izpiritua pizten lagunduko digun deia. Horrela, elkarrekin bidea eginez, Jainkoaren maitasunaren lekuko sinesgarri eta alai izanen gara gure garaian.

+ FLORENCIO ROSELLÓ
AVELLANAS O de M
Iruñeko artzapezpikua
eta Tuterako apezpikua



JARRI BIDEAN!

PASTORAL PLAN BAT

- ↻ Betetzeko modukoa, egiazkoa eta ebaluagarria
- ↻ Denontzat
- ↻ Misioaren zerbitzura

Guztion arteko prozesu gardena, bukaerako azterketarekin.



AMETS PARTEKATUA



Komunioa

- ↻ Otoitza
- ↻ Bizitza espirituala
- ↻ Lehentasuna behartsuei eta sufritzen dutenei emanez

Parte-hartzea

- ↻ Misio-bokazioarekin
- ↻ Pertsona bakoitzarengandik gertu
- ↻ Kristorengan sustraituak
- ↻ Denok batera

Gure misioa

- ↻ Ebanjelizatzea, kanpora ateratzen den eta harrera egiten duen Eliza izanez.

LANTZEKO 12 GAI

- ↻ Berri ona iragarri
- ↻ Pastoral Arreta Unitateak
- ↻ Formazioa
- ↻ Komunikazioa
- ↻ Laikoak
- ↻ Behartsuak
- ↻ Familiak
- ↻ Gazteak
- ↻ Apaizak
- ↻ Bizitza sagaratu
- ↻ Landa ingurunea
- ↻ Babesa eta ingurune seguruak



12 KONPROMISO

Gai bakoitzean elkarrekin ibilarazten gaituzten ametsak dira.



IBILI BEHARREKO BIDEAK

Gai bakoitzean, lantzeko ekintzak proposatzen dira eta hauei "Bideak" deitu diegu. Ekintza bihurtutako konpromisoak izanen dira.